

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000002472

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0948**Xedea**

COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alarma dala eta, 2020ko urriaren 23tik aurrera, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzen dauan 2.466 Alkatetza Dekretua zuzentzea.

Aurrekariak

Bakarra: COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alarma dala eta, 2020ko urriaren 23tik aurrera, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzen dauzan 2.467 Alkatetza Dekretuaren xedean data errakuntza dago.

Argudioak

Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, zera jasotzen dau: "Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos".

Beraz, kontutan eukita erredakzinoan egitezko akats bat egon dala, xedean "urriaren 23tik" ipini beharrean "irailaren 23tik" ipinten dauelako, artikulua horrerri jarraiki, akatsa ofizios zuzendu leike, eta halan egin behar da.

Erabagia

Aipatutako guztia kontuan izanda honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: 2020ko urriaren 23ko 2.467 Alkatetza Dekretuaren xedeko data zuzentzea, iraila ipinten dauen lekuan urria ipinita. Hori horrela modu honetan geratuko da:

***2.467 Alkatetza Dekretua**

Xedea

COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alarma dala eta, 2020ko urriaren 23tik aurrera, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzea.

**Sinadurea eta data**

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisia aurre egiteko prebentzino, euspen eta koordinazio premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-legea onartu zan.

Laugarrena: 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. Fasea gaindituz eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hastea onartu zan.

Bosgarrena: 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Agindua emon eban.

Seigarrena: 2020ko uztailaren 28an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Zazpigarrena: 2020ko abuztuaren 14an, Segurtasun sailburuak, COVID-19 dalakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta, Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurreiteko Bidea-Labi izeneko plana, formalki aktibatzen Agindua emon eban.

Zortzigarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bederatzigarrena: 2020ko abuztuaren 19an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Hamargarrena: 2020ko urriaren 22an, Osasun sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoan, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta, osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzeko Agindua emon eban.

Argudioak



Lehenengoa: 21/2020 Errege Dekretu-legeak honakoa xedatzen dau:**6. artikuluan: "Uso obligatorio de mascarillas.**

1. Las personas de seis años en adelante quedan obligadas al uso de mascarillas en los siguientes supuestos:

a) En la vía pública, en espacios al aire libre y en cualquier espacio cerrado de uso público o que se encuentre abierto al público, siempre que no resulte posible garantizar el mantenimiento de una distancia de seguridad interpersonal de, al menos, 1,5 metros."

13. artikuluan: "Actividades de hostelería y restauración.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de bares, restaurantes y demás establecimientos de hostelería y restauración de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que se determinen.

En cualquier caso, deberá asegurarse la adopción de las medidas organizativas que resulten necesarias para evitar aglomeraciones tanto dentro del establecimiento como en los espacios de terrazas autorizados y garantizar que clientes y trabajadores mantengan una distancia de seguridad de, al menos, 1,5 metros. Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio."

16. artikuluan: "Otros sectores de actividad.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de cualquier otro centro, lugar, establecimiento, local o entidad que desarrolle su actividad en un sector distinto de los mencionados en los artículos anteriores, o por los responsables u organizadores de la misma, cuando pueda apreciarse riesgo de transmisión comunitaria de COVID-19 con arreglo a lo establecido en el artículo 5, de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que aquellas establezcan.

En todo caso, se deberá asegurar que se adoptan las medidas necesarias para garantizar una distancia interpersonal mínima de, al menos, 1,5 metros, así como el debido control para evitar las aglomeraciones. Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio"

Bigarrena: Osasun sailburuak urriaren 22an emondako aginduan honakoa xedatzen da:**2. artikuluan: "Prebentzio-neurriak.**

Neurri horiek mugatu eta osatu egiten dituzte Osasuneko sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduaren eranskinean ezarritakoak. Agindu horren bidez, laugarren aldiz aldatu zen COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Plan hori, 2020ko uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko Agindu bidez aldatu zen. Neurri horiek erabat aplikagarriak dira xedatutakoarekin kontraesanean ez dauden bitartean, eta oro har emandako beste xedapen batzuei kalterik egin gabe, horiek ere aplikagarriak izango baitira. Herritarrek aktiboki lagundu beharko dute agindu honetan ezarritako prebentziozko osasun-neurriak betetzen"

3. artikuluan: "Efikazia.

Neurri hauek 2020ko urriaren 23tik 2020ko azaroaren 4ra arte egongo dira indarrean, biak barne, eta luzatu, aldatu edo ondoriorik gabe utzi ahal izango dira, egoera epidemiologikoaren arabera. Egoera hori etengabe ebaluatuko da gaixotasunaren bilakaera behatzeko.



Ondorio horietarako, aldatu ahal izango dira edo ondoriorik gabe utzi ahal izango dira osasun-arloan eskumena duen saileko titularraren aginduz, baldin eta egiaztatzen bada osasunaren ikuspuntutik egokiagoak diren neurriak hartu behar direla gaixotasunaren hedapenari eusteko. Era berean, agindu honetan hartutako neurriez gain, Osasuneko sailburuak beste neurri murriztaile batzuk hartu ahal izango ditu bere egoera epidemiologikoa larriagotzen den udalerrri edo eskualdeetan”.

Eranskinen 8. Artikuluan: “Ostalaritzako lokalak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

8.1.– Barruan baimendutako gehieneko edukieraren % 50eko edukiera baimentzen da, eta mahaian eta, hala badagokio, mahai-multzoen arteko 1,5 metroko distantzia fisikoa ziurtatu beharko da, barruan zein kanpoan. 1,5 metroko distantzia hori mahaietatik edo mahai-multzoetatik gertuen dauden pertsonen artean neurtuko da. Mahai bakoitzeko edo mahai-multzo bakoitzeko gehieneko okupazioa 6 pertsonakoa izango da, barruan zein kanpoan. Horretarako erabiltzen den mahaiak edo mahai-multzoak pertsona kopuruaren arabera izan behar dute, eta ahalbidetu behar dute pertsonen arteko gutxienezko segurtasun-distantzia errespetatzea. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez zaie aplikatuko bizikidetz-unitate bereko kideei.

8.2.– Kontsumoa eserita egingo da beti. Bezeroen edo bezero-taldeen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa mantendu beharko da beti, eta denbora guztian eserita egon beharko dute. Kotelak eta buffetak egin daitezke, gehienez ere 6 laguneko taldeetan. Betiere ziurtatu beharko da bezeroen edo bezero-taldeen arteko segurtasun-tarte egokia mantentzen dela, bai establezimenduaren barruko barran eta mahaietan, bai establezimenduaren kanpoaldean, eta bezero edo bertaratu guztiek eserita egon beharko dute. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez zaie aplikatuko bizikidetz-unitate bereko kideei.

8.3.– Maskara nahitaez erabili beharko da une oro, kontsumitzeko berariazko unean izan ezik.

8.4.– Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruz indarrean dauden osasun-jarraibideekin bat etorritik, egungo egoerak eta agindu honen indarraldiak irauten duten bitartean, ez da ordutegiak luzatzeko baimen berririk emango jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren euskal erregelamenduaren 37. artikulua babesean, eta eman direnak ondoriorik gabe utziko dira.

8.5.– Ostalaritza eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuek, terrazek barne, 00:00ak baino lehen itxi beharko dute, bezeroz hustu ondoren. Lokala itxita egon beharko da jendearentzat eta ezin izango da berriro ireki 06:00ak baino lehen. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, jaiegunak barne.

8.6.– Aurreko puntuan ezarritako ordutegi-mugak ez zaizkie aplikatuko erregaiak txikizka eta etengabeko zerbitzuan banatzen dituzten zerbitzuguneetako ostalaritza-zerbitzuei. Zerbitzuguneen titularrek bermatuko dute instalazioetako komun- eta ostalaritza-zerbitzuak eskuragarri egongo direla garraio profesionaleko zerbitzuak ematen ari diren pertsonentzat soilik. Zerbitzu horien artean, honako hauek egongo dira: sukaldea duten establezimenduetako catering-zerbitzuak (sukaldea irekita egon ahal izango da); ostalaritza-zerbitzuak; edo prestatutako janaria saltzeko makinak. Zerbitzu horietan ezin izango da alkoholdu edaririk saldu, eta ezin izango dute beste zerbitzurik eskaini aurreko puntuan adierazitako ordutegi-mugaren barruan; horrez gain, gehienez ere hamar laguneko edukiera izango dute.

8.7.– Debehatuta dago txokoetan eta elkarte gastronomikoetan edozer jarduera mota egitea, eta itxita egon beharko dute”.

Hirugarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400051EDA00Y1W3Y7M4J3H3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
15:32:37

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada:
Erregistro nagusia



LEHENENGOA: COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alarma dala eta, 2020ko urriaren 23tik eta azaroaren 4ra, kontrako agindurik emoten ez dan bitartean, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Taberna barruko aforoa %50era murrizten da.
- Ezingo da zutik kontsumitu, ez taberna barruan ez kanpoaldean be. Mahaietan jesarrita kontsumitu beharko da derrigor, eta jesarrita dagozan pertsona taldeen arteko gitxieneko distantzia (1,5 m.) bermatu beharko da.
- Mahaien edo mahai multzoen gehienezko okupazioa 6 pertsonakoa izango da.
- Ahoa estaltzeko maskalira erabili beharko da, jan eta edateko unean izan ezik.
- Barran jesarrita kontsumitu ahal izango da beti be pertsona edo pertsona taldeen arteko gitxieneko distantzia (1,5) betetzen dala bermatuta.
- Establezimenduen barruan 60 pertsona egon ahal izango dira gehienez, beti be aurretik zehaztutako gitxieneko distantziak bermatuta eta jesarrita.
- Koktel edo buffetak antolatzekotan, 6 parte hartzaileentzat izango dira gehienez, jesarrita izango da, eta pertsona multzoen arteko gitxieneko distantzia bermatu beharko da (1,5 m).
- Debehatuta dago erretzea, gailua edozein dala be, 2 metroko distantzia bermatu ezin bada.
- Establezimendu guztiek 00:00etan zarratu beharko dabe beranduen jota. Ordu horretarako bezeroak kanporatuta eta guztiz zarratuta egon behar dira.
- Establezimenduak ezingo dira 06:00ak baino arinago zabaldu.
- Txokoen erabilera debehatuta dago eta zarratuta egongo dira.
- Diskoteka eta gaueko aisialdiko erabilera debehatuta dago eta, ondorioz, ezingo dira III eta IV kategorietako jarduera bereziak garatu. Hori horrela, III eta IV kategorietako lokalek, II kategoriako jarduerak burutu ahal izango dabez, aurreko ataletan zehaztutako muga eta ordutegiak bat.
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emondako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400051EDA00Y1W3Y7M4J3H3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
15:32:37

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



BIGARRENA: Erabagi hau ostalaritzako establezimendu guztieri jakinaroztea.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, ATB sailari, Turismo Sailari eta Udaltzaingoiari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400051EDA00Y1W3Y7M4J3H3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
15:32:37

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

